TOLOSAKO UDALA

*Aurretiazko kontsulta publikoa*

**BIDE PUBLIKOAN EGITURA ALDAMIODUNAK, GARABIAK ETA OBRAKO BESTELAKO BALIABIDE LAGUNGARRIAK JARTZEKO UDAL ORDENANTZA BERRIAREN PROPOSAMENA**

**Aurrekariak**

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearenak, VI. Tituluan arautzen ditu administrazio publikoen legegintza ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala.

Honela, lege horren 133. artikuluan xedatutakoaren arabera, araudi proiektu bat prestatu aurretik, kontsulta publikoa egin behar da. Honakoa dio artikulu horrek:

*«133. artikulua. Herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea.*

*1. Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:*

*a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.*
*b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.*
*c) Arauaren helburuak.*
*d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak (...)».*

Consulta pública previa

**PROPUESTA DE NUEVA ORDENANZA MUNICIPAL PARA LA INSTALACIÓN DE ESTRUCTURAS ANDAMIADAS, GRÚAS Y OTROS TIPOS DE MEDIOS AUXILIARES DE OBRA EN LA VÍA PÚBLICA**

**Antecedentes**

La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, regula en su Título VI la iniciativa legislativa y la potestad reglamentaria de las Administraciones Públicas.

Así, el artículo 133 de la citada ley establece que, con carácter previo a la elaboración de un proyecto normativo, debe realizarse una consulta pública. Dicho artículo dice lo siguiente:

*«Artículo 133. Participación de los ciudadanos en el procedimiento de elaboración de normas con rango de Ley y reglamentos.*

*1. Con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de:*

*a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.*
*b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.*
*c) Los objetivos de la norma.*
*d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias (...)».*

Tolosako Udaleko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoa Departamentuak bide publikoan egitura aldamiodunak, garabiak eta obrako bestelako baliabide lagungarriak jartzeko ordenantza arautzailea osatzeko beharra proposatu du.

El Departamento de Urbanismo, Obras y Servicios, Medioambiente, Movilidad y Transición Energética del Ayuntamiento de Tolosa, plantea la necesidad de elaborar una Ordenanza para la instalación de estructuras andamiadas, grúas y otros tipos de medios auxiliares de obra en la vía pública.

Legeak ezarritako prozedura betetzeko, aldez aurreko kontsulta publikoa egingo da, ordenantza onartu aurretik.

Para el cumplimiento del procedimiento establecido por la ley, se realizará una consulta pública previa a la aprobación de la ordenanza.

Herritarrek, erakundeek eta elkarteek hala iritziz gero, parte hartu ahal izango dute eta ekarpenak egin, bi bide hauetako edozein erabilita:

- Helbide elektroniko honetara bidalita: hirigintza@tolosa.eus
- Udalaren Erregistroan aurkeztuta, aurrez aurre zein telematikoki (Plaza Zaharra 6-A, Tolosa).

La ciudadanía, instituciones y asociaciones podrán participar y realizar aportaciones a través de cualquiera de las dos vías siguientes:

- Enviando un e-mail a la siguiente dirección: hirigitza@tolosa.eus
- Presentado en el Registro del Ayuntamiento, tanto presencial como telemáticamente (Plaza Zaharra 6-A, Tolosa).

Horretarako, 15 lanegun izango dituzte, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

A tal efecto, dispondrán de 15 días hábiles contados a partir del día siguiente al de la publicación del anuncio.

**Ekimenarekin zer arazo konpondu nahi diren**

Ordenantza berri bat onetsita eta, udalerriek herritarren bizi-kalitatearen hobekuntza dakarren jarduerak garatzeko duten ahalaz baliatuz, lortu nahi da bide publikoaren okupazioa obrako edozein bitarteko laguntzailerekin arautzea eta babes-neurriak ezartzea Tolosako udalerrian egiten diren obra lanetan.

**Problemas que se pretenden resolver con la iniciativa**

Con la aprobación de una nueva ordenanza y en el ejercicio de la potestad de los municipios para desarrollar actividades que supongan una mejora de la calidad de vida de los ciudadanos, se pretende regular la ocupación de la vía pública con cualquier medio auxiliar de obra y establecer medidas de protección en las obras se realicen en el término municipal de Tolosa.

Hala, ordenantza arautzaile berriaren aplikazio eremua Tolosako udal-mugartean bide publikoan instalatutako egitura, aldamio eta bestelako bitarteko lagungarri guztiak izango lirateke, eraispen, konponketa, zaharberritze, itxitura, birgaitze edo eraikinen eraikuntza berriko lanak egiteko, eta bide publikoan enpresa pribatuek egiten dituzten obra zibilengatik.

Así, el ámbito de aplicación de la nueva ordenanza reguladora serían todas las estructuras, andamiadas y otros medios auxiliares de obra instalados en la vía pública en el término municipal de Tolosa, para la ejecución de trabajos de demolición, reparación, restauración, cerramientos, rehabilitación o nueva construcción de edificios, y por obras civiles en la vía pública que ejecuten empresas privadas.

Azken batean, ordenantza berriarekin, besteak beste, bide publikoan jarriko diren elementuetarako ezarpen-erregimen bat ezarri nahi da, hala nola: aldamio tubularrak, plataforma jasotzaile motordunak, egitura-aldamioak, aldamio esekiak, materialak jasotzeko edo jaisteko sistemak, edukiontziak eta morterozko siloak.

En definitiva, lo que se pretende con la nueva ordenanza es, entre otros, establecer un régimen de implantación para aquellos elementos que se vayan a colocar en la vía pública; tales como: andamios tubulares, plataformas elevadoras motorizadas, andamios estructurales, andamios colgantes, sistemas de elevación o descenso de materiales, contenedores y silos de mortero.

**Araudia onartzeko beharra eta egokitasuna**

Langileen eta, batez ere, oinezkoen eta ibilgailuen trafikoaren osotasun fisikoa bermatzeko, eta bide publikoak eta hiri-altzariak hobeto kontserbatzeko, Tolosako Udaleko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoa Departamentuak oso garrantzitsutzat jotzen du aipatutako ordenantzaren onarpena bultzatzea, bide publikoan egitura aldamiodunak, garabiak eta obrako bestelako bitarteko lagungarriak instalatzeko.

**Necesidad y oportunidad de su aprobación**

A fin de garantizar la integridad física de los operarios y fundamentalmente de los viandantes y tráfico rodado, así como la mejor conservación de los viales públicos y del mobiliario urbano, el Departamento de Urbanismo, Obras y Servicios, Medio Ambiente, Movilidad y Transición Energética del Ayuntamiento de Tolosa considera sumamente importante impulsar la aprobación de la mencionada ordenanza para la instalación de estructuras andamiadas, grúas y otros tipos de medios auxiliares de obra en la vía pública.

**Ordenantzaren helburuak**

Ordenantzaren helburu orokorra izango

**Objetivos de la Ordenanza**

El objetivo general de la Ordenanza sería,

litzateke, aurreko puntuetan aipatutakoez gain, bide publikoan jarriko diren instalazioek eta bitarteko osagarriek eskaera udaletxean aurkezteko kasu bakoitzean aplikagarriak diren baldintza tekniko eta arauemaileak betetzea. Eta, era berean, Tolosako Udalari ahalmena ematea baimendutako elementuak instalatu ondoren ikuskatu ahal izan ditzan, horien egoera eta erabilera egiaztatzeko.

Ikuskapen-jarduera dela eta, pertsonen eta ondasunen segurtasuna arriskuan jar dezaketen egoerak atzemango balira, helburua izango litzateke Udalak kautelazko neurriak, neurri zuzentzaileak edo ordenamendu juridikoan aurreikusitako gainerako neurriak ezartzea, baita prebentziokoak ere, segurtasun-baldintzak berrezartzea bermatzeko.

**Araudi bidezko eta araudiz besteko zer beste irtenbide izan daitezkeen**

Bide publikoan egitura aldamiodunak, garabiak eta obrako bestelako bitarteko lagungarriak instalatzeko ordenantza jotzen da bide publikoan edozein egitura, aldamio eta bestelako bitarteko lagungarri, partzialki bada ere, instalatzeko nahitaezko udal-lizentziak modu eraginkorrean gauzatzeko tresna praktiko bakartzat.

además de los ya mencionados en los puntos anteriores, que las instalaciones y medios auxiliares que se vayan a colocar en la vía pública cumplan para la presentación de la solicitud en el ayuntamiento los requisitos técnicos y normativos que les son de aplicación en cada caso. Y, asimismo, facultar al Ayuntamiento de Tolosa para que una vez se instalasen los elementos autorizados pudiera inspeccionarlos para verificar su estado y uso.

Si con ocasión de la actividad inspectora se observasen situaciones que pudieran poner en riesgo la seguridad de las personas y bienes, el objetivo sería que el Ayuntamiento pudiera establecer medidas cautelares, correctoras, o resto de medidas previstas en el ordenamiento jurídico, incluso las preventivas, para garantizar el restablecimiento de las condiciones de seguridad.

**Posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias**

Se considera la ordenanza para la instalación de estructuras andamiadas, grúas y otros tipos de medios auxiliares de obra en la vía pública como el único instrumento práctico para llevar a cabo de manera eficaz las licencias municipales preceptivas para la instalación de cualesquiera estructuras, andamios y otro tipo de medios auxiliares en la vía pública, aún de modo parcial.